



ESTATISTIKA
ORGANO
ORGANO
ESTADÍSTICO

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LURRALDE PLANGINTZA,
ETXEBIZITZA
ETA GARRAIO SAILA
Zerbitzu Zuzendaritza
Estatistika Organo Berezia

DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN
TERRITORIAL, VIVIENDA
Y TRANSPORTES
Dirección de Servicios
Órgano Estadístico Específico

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGO A

ERAIKUNTZARI ETA ETXEBIZITZARI BURUZKO ESTATISTIKA

2020ko urteko txostena

Emaita nagusiak

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko
Estatistika Organo Berezia



1. OBRA HANDIKO LIZENTZIAK

2020an, emandako lizentzia kopuruak behera egin du aurreko urtearekin alderatuta. Beherakada antzeko termino erlatiboetan erregistratu da eraikuntza berriko lizentzietan eta birgaitzeko lizentzietan.

2020an emandako lizentzien bolumena (2.885 lizentzia) % 12,7 jaitsi da 2019arekin alderatuta (3.304 lizentzia), eta 3.000 lizentziatik behera geratu da (zifra hori gainditu egin zen 2016an eta 2019an). Hala ere, 2020ko lizentzien bolumena 2015eko zifraren gainetik geratu da (2.744 lizentzia).

2005. urtea hartzen bada erreferentziatzat (urte horretatik aurrera nabarmen hasi zen ikusten lizentzia kopuruaren murrizketa), 2020ko kopuruak 821 lizentzia gutxiago eman zirela adierazten du. Termino erlatiboetan, 2005etik 2020ra bitartean emandako lizentzien urteko kopuruen beherakada deigarria da (-% 22,2).

1. taula. Obra handiko lizentziak urteka, obra motaren arabera. 1998-2020

(Urte arteko aldakuntza eta balio absolutuak ehunekotan)

Euskadi	Guztira		Oinplano berria		Birgaitzea		Eraispena	
	Kop.	Urte arteko aldakuntza	Kop.	Urte arteko aldakuntza	Kop.	Urte arteko aldakuntza	Kop.	Urte arteko aldakuntza
1998	3.374		1.795		1.522		57	
1999	3.361	-0,4	1.798	0,2	1.499	-1,5	64	12,3
2000	3.424	1,9	1.756	-2,3	1.594	6,3	74	15,6
2001	3.414	-0,3	1.680	-4,3	1.643	3,1	91	23,0
2002	3.086	-9,6	1.447	-13,9	1.574	-4,2	65	-28,6
2003	3.101	0,5	1.489	2,9	1.544	-1,9	68	4,6
2004	3.700	19,3	1.590	6,8	2.002	29,7	108	58,8
2005	3.706	0,2	1.570	-1,3	2.025	1,1	111	2,8
2006	3.618	-2,4	1.654	5,4	1.862	-8,0	102	-8,1
2007	3.474	-4,0	1.399	-15,4	1.979	6,3	96	-5,9
2008	3.133	-9,8	1.024	-26,8	2.019	2,0	90	-6,3
2009	2.034	-35,1	578	-43,6	1.407	-30,3	49	-45,6
2010	2.602	27,9	675	16,8	1.863	32,4	64	30,6
2011	2.883	10,8	660	-2,2	2.174	16,7	49	-23,4
2012	2.380	-17,4	447	-32,3	1.909	-12,2	24	-51,0
2013	2.145	-9,9	351	-21,5	1.746	-8,5	48	100,0
2014	2.585	20,5	390	11,1	2.133	22,2	62	29,2
2015	2.744	6,2	444	13,8	2.240	5,0	60	-3,2
2016	3.145	14,6	518	16,7	2.567	14,6	60	0,0
2017	3.087	-1,8	459	-11,4	2.563	-0,2	65	8,3
2018	3.329	7,8	475	3,5	2.778	8,4	76	16,9
2019	3.304	-0,8	436	-8,2	2.800	0,8	68	-10,5
2020	2.885	-12,7	377	-13,5	2.445	-12,7	63	-7,4
2006-2013 Aldakuntza	-1.473	-40,7	-1.303	-78,8	-116	-6,2	-54	-52,9
1999-2020 Aldakuntza	-476	-14,2	-1.421	-79,0	946	63,1	-1	-1,6
2005-2020 Aldakuntza	-821	-22,2	-1.193	-76,0	420	20,7	-48	-43,2
2006-2020 Aldakuntza	-733	-20,3	-1.277	-77,2	583	31,3	-39	-38,2

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 1998 - 2020


2020an, eraikuntza berriko lizentzien kopuruak % 13,5 egin zuen behera 2019arekin alderatuta. Kopuru hori (377 lizentzia) oso urrun dago 1998-2006 aldian eman ziren eraikuntza berriko 1.500 lizentzietatik, eta 2014tik erregistratutako zifrarik baxuena da (orduan 390 lizentzia eman ziren).


Eraikuntza berriko lizentzien beherakadaren hasiera aztertuz gero (2006tik 2007ra bitartean gertatutakoa), 2006an 1.654 lizentzia eman ziren, eta 2020an, berriz, 377. Horrek 2006an baino 1.277 lizentzia gutxiago eman zirela esan nahi du, hau da, % 77,2 gutxiago.

Bestalde, birgaitzeko lizentzien analisiak eraikuntza berriko lizentzien portaera antzekoa izan dela erakusten du. Egiaztatu da eraikuntza berriko lizentzien bolumena % 12,7 jaitsi dela azken urtean, 2.800 lizentzietatik (2019an) 2.445era (2020an).


1. grafikoa. Obra handiko lizentzia kopurua obra motaren eta urtearen arabera. 1998-2020

Zifra absolutuak





Portzentajezko banaketa



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 1998 - 2020

2009ko salbuespenarekin (1.407 birgaitze-lizentzia), 2004. eta 2013. urteen artean mota horretako 1.800-2.000 lizentzia erregistratu ziren. 2013tik aurrera, jarduerak gora egin zuen berriro 2019ra arte, urte horretan lortu baitzen 1998tik izandako baliorik handiena (2.800 lizentzia). 2020an, emandako birgaitze-lizentzien kopurua 2.445era jaitsi da (% 12,7 gutxiago).



Eraispenei dagokienez, argi eta garbi pisu txikia izan dute lizentziek, eta 2019. eta 2020. urteen artean -% 7,4ko beherakada izan da. Azken urte horretan, tipologia horretako 63 lizentzia eman dira guztira, 2019an emandako 68 lizentziak baino pixka bat gutxiago.

2. taula. Eraikuntza berriko eta birgaitzeko obra handiko lizentziak, urtearen eta lurralde historikoaren arabera, obra motaren arabera. 1998-2020

(Urte arteko aldakuntza eta balio absolutuak ehunekotan)

Urtea	Araba				Bizkaia				Gipuzkoa			
	Eraikuntza berria		Birgaitzea		Eraikuntza berria		Birgaitzea		Eraikuntza berria		Birgaitzea	
	Kop.	Aldakuntza	Kop.	Aldakuntza	Kop.	Aldakuntza	Kop.	Aldakuntza	Kop.	Aldakuntza	Kop.	Aldakuntza
1998	590		411		705		865		500		246	
1999	616	4,4	432	5,1	705	0,0	904	4,5	477	-4,6	163	-33,7
2000	648	5,2	404	-6,5	608	-13,8	997	10,3	500	4,8	193	18,4
2001	548	-15,4	439	8,7	663	9,0	950	-4,7	469	-6,2	254	31,6
2002	513	-6,4	327	-25,5	549	-17,2	950	0,0	385	-17,9	297	16,9
2003	513	0,0	267	-18,3	545	-0,7	944	-0,6	431	11,9	333	12,1
2004	573	11,7	421	57,7	623	14,3	1.186	25,6	394	-8,6	395	18,6
2005	525	-8,4	493	17,1	644	3,4	1.155	-2,6	401	1,8	377	-4,6
2006	604	15,0	550	11,6	642	-0,3	923	-20,1	408	1,7	389	3,2
2007	526	-12,9	588	6,9	535	-16,7	977	5,9	338	-17,2	414	6,4
2008	368	-30,0	588	0,0	386	-27,9	1.028	5,2	270	-20,1	403	-2,7
2009	223	-39,4	525	-10,7	180	-53,4	650	-36,8	175	-35,2	232	-42,4
2010	226	1,3	715	36,2	283	57,2	883	35,8	166	-5,1	265	14,2
2011	214	-5,3	829	15,9	256	-9,5	1.063	20,4	190	14,5	282	6,4
2012	134	-37,4	664	-19,9	183	-28,5	942	-11,4	130	-31,6	303	7,4
2013	110	-17,9	565	-14,9	150	-18,0	891	-5,4	91	-30,0	290	-4,3
2014	113	2,7	558	-1,2	179	19,3	1.203	35,0	98	7,7	372	28,3
2015	129	14,2	572	2,5	178	-0,6	1.244	3,4	137	39,8	424	14,0
2016	137	6,2	659	15,2	243	36,5	1.380	10,9	138	0,7	528	24,5
2017	128	-6,6	644	-2,3	202	-16,9	1.462	5,9	129	-6,5	457	-13,4
2018	136	6,3	664	3,1	216	6,9	1.530	4,7	123	-4,7	584	27,8
2019	133	-2,2	673	1,4	178	-17,6	1.541	0,7	125	1,6	586	0,3
2020	113	-15	568	-15,6	161	-9,6	1.348	-12,5	103	-17,6	529	-9,7
2005-2020 aldakuntza	-412	-78,5	75	15,2	-483	-75,0	193	16,7	-298	-74,3	152	40,3
2006-2020 aldakuntza	-491	-81,3	18	3,3	-481	-74,9	425	46,0	-305	-74,8	140	36,0


Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 1998 - 2020

2007ko eraikuntza-sektorearen krisialditik erabat aldatu da emandako obra handiko lizentzien tipologia: eraikuntza berriko lizentziek behera egin dute, eta birgaitzeko obretan, berriz, gero eta handiagoa da parte-hartzea. 2020an, azken horiek guztizkoaren % 84,7 izan dira, 2019an bezala. Datu hori ez dator bat 2003. urtea baino lehen ikusitakoarekin, urte horietan lizentzia mota horren pisu erlatiboa ez baitzen guztizkoaren % 50era iristen.

Eraikuntza berriko lizentziei dagokienez, kontrakoa gertatzen da: 2020an gutxieneko ehunekoa lortu da (% 13,1), 2019an erregistratutakoaren antzera (% 13,2). Eraisteko bakarrik emandako lizentzien kasuan, proportzioa ez da gehiegi aldatu urteetan zehar, eta ia ez da aldatu urtero ematen diren lizentzietan, % 1-3ren artean.

Azken urteko lurralde-dinamikak ez du elementu espezifiko garrantzitsurik eskaintzen, eta Covid-19ak baldintzatuta egongo da seguruenik. Eraikuntza berriko lizentziei dagokienez, hiru lurraldeetan egin dute behera: % 9,6 Bizkaian, % 15 Araban eta % 17,6 Gipuzkoan. Birgaikuntzaren kasuan ere, lurralde guztietan beheranzko joera erregistratu da: % 9,7 Gipuzkoan, % 12,5 Bizkaian eta % 15,6 Araban.

2. grafikoa. Obra handiko lizentzien kopurua, obra motaren eta lurralde historikoaren arabera. 1998-2020



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 1998 - 2020



2. EMANDAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIEN ERABILERA

2020an, bizitegi-erabilerarako obra handiko lizentzien kopuruak behera egin zuen (-% 11,6), baita bizitegi-erabilerarako ez diren obretarako emandako lizentzien ehunekoak ere (-% 17,2), eta horrek eragin negatiboa du jarduera-sektore guztietan.

Obra handietarako lizentzien epe ertain eta luzeko dinamikaren azterketak erakusten du, egungo jarduera 2007ko krisiaren aurreko aldiekin alderatuz gero, bilakaera negatiboak esanguratsua izaten jarraitzen duela.

3. taula. Obra handiko lizentziak, urtearen eta hiruhilekoaren arabera, obraren xedearen arabera (*) 1998-2020

(Urte arteko aldakuntza eta balio absolutuak ehunekotan)

Urtea	Bizitegia		Bizitegiak bestelakoa							
			Bizitegiak bestelakoa. Guztira		Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza		Industria eta energia		Zerbitzuak	
	Kop.	Aldakuntza	Kop.	Aldakuntza	Kop.	Aldakuntza	Kop.	Aldakuntza	Kop. ^o	Aldakuntza
1998	2.217		1.100		192		314		594	
1999	2.196	-0,9	1.101	0,1	153	-20,3	258	-17,8	690	16,2
2000	2.250	2,5	1.100	-0,1	129	-15,7	258	0,0	713	3,3
2001	2.239	-0,5	1.084	-1,5	164	27,1	278	7,8	642	-10,0
2002	2.118	-5,4	903	-16,7	116	-29,3	271	-2,5	516	-19,6
2003	2.343	10,6	690	-23,6	118	1,7	180	-33,6	392	-24,0
2004	2.801	19,5	791	14,6	113	-4,2	207	15,0	471	20,2
2005	2.773	-1,0	822	3,9	105	-7,1	244	17,9	473	0,4
2006	2.693	-2,9	823	0,1	103	-1,9	213	-12,7	507	7,2
2007	2.592	-3,8	786	-4,5	118	14,6	208	-2,3	460	-9,3
2008	2.268	-12,5	775	-1,4	125	5,9	209	0,5	441	-4,1
2009	1.472	-35,1	513	-33,8	80	-36,0	131	-37,3	302	-31,5
2010	1.774	20,5	764	48,9	110	37,5	143	9,2	511	69,2
2011	2.081	17,3	753	-1,4	106	-3,6	130	-9,1	517	1,2
2012	1.704	-18,1	652	-13,4	103	-2,8	155	19,2	394	-23,8
2013	1.556	-8,7	541	-17,0	107	3,9	123	-20,6	311	-21,1
2014	1.793	15,2	730	34,9	125	16,8	134	8,9	471	51,4
2015	1.908	6,4	776	6,3	117	-6,4	183	36,6	476	1,1
2016	2.263	18,6	822	5,9	93	-20,5	190	3,8	539	13,2
2017	2.280	0,8	742	-9,7	69	-25,8	221	16,3	452	-16,1
2018	2.491	9,3	762	2,7	86	24,6	210	-5,0	466	3,1
2019	2.531	1,6	705	-7,5	73	-15,1	200	-4,8	432	-7,3
2020	2.238	-11,6	584	-17,2	53	-27,4	128	-36,0	403	-6,7
2005-2020 aldakuntza	-535	-19,3	-238	-29,0	-52	-49,5	-116	-47,5	-70	-14,8
2007-2020 aldakuntza	-354	-13,7	-202	-25,7	-65	-55,1	-80	-38,5	-57	-12,4

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 1998 - 2020


(*) Ez dira sartzen eraispenetarako lizentzia eskusiboak

Horrela, 2020an bizitegi-erabilerarako emandako lizentzien kopurua txikiagoa da, 2005ean erregistratutakoa baino % 19,3 txikiagoa. Bizitegikoak ez diren proiektuei buruzko jardueran, aldiz, beherakada handiagoa izan da aldi horretan (–% 29,0), eta beherakada nabarmenak izan dira lehen sektorerako eta industria eta energiara bideratutako lizentzietan. 2020an, lehen sektorerako emandako lizentziak 2005ean emandakoak baino % 49,5 txikiagoak izan ziren; murrizketa hori % 47,5ekoa izan zen industrian eta energian, eta % 14,8koa zerbitzuen sektorean.


Datu historikoek erakusten dutenez, 2014tik bizitegi-erabilerako lizentziek (% 71,1) gora egin dute pixkanaka bizitegi-erabilerakoak ez direnekin alderatuta. Hala, azken urtean % 78,2tik (2019an) % 79,3ra (2020an) igaro da bizitegi-erabileraren pisua, eta azken urte horretan, serieko maximora iritsi zen 1998tik.

3. grafikoa. Obra handiko lizentziak, urtearen eta hiruhilekoaren arabera, obraren xedearen arabera. 1998-2020

Zifra absolutuak



Portzentaje-zko banaketa



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 1998 - 2020



(*) Ez dira sartzen eraispenetarako lizentzia eskusiboak

Bizitegi-erabilerarako ez diren obretarako lizentzien artean, egiaztatu da emandako lizentzia gehienak zerbitzuen sektorearekin lotutako jardueretara bideratuta daudela, eta edizio guztietan 1998an ikusitako % 54 gairitu da. Lortutako maximoa 2020koa da; izan ere, sektore horrek bizitegi-erabilerarako ez diren helburuetarako emandako lizentzien % 69 jaso ditu urte horretan, eta 2011ko maximoa (% 68,7) gairitu du.

2019an erregistratutako datuekin alderatuz gero, aldaketak daude bizitegirako ez diren lizentzien emakidan, obraren xedearen arabera. Zerbitzuen sektoreari lotutako lizentzien igoera hori nabarmendu behar da: bizitegi-erabilerakoak ez diren lizentziak % 61,3 izan ziren 2019an, eta % 69,0, berriz, 2020an, 1998tik izandako daturik altuena. Igoera horren ondorio gisa, behera egin du industriaren eta energiaren sektorerako bideratutako lizentzien pisu erlatiboak: % 28,4koa izan zen 2019an, eta % 21,9koa 2020an.

Nekazaritzarekin, abeltzaintzarekin, basogintzarekin eta arrantzarekin lotutako obra-lizentziei dagokienez, jarduera-talde minoritarioa izan arren, oro har, lizentziak emateko orduan duten parte-hartze erlatiboa sektore horren pisu ekonomikoa baino handiagoa da. Hala, haren parte-hartze erlatiboa % 10etik gorakoa izan da beti, 2017an (% 9,3) eta 2020an izan ezik, azken urte horretan minimo historikora iritsi baita (% 9,1). Bizitegi-erabilerarako ez diren lizentzien % 19,8ko balio maximoa 2013. urtean lortu zen.

4. grafikoa. Bizitegitarako ez diren obra handiko lizentziak, obraren xedearen arabera (*). 1998-2020



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 1998 - 2020

(*) Ez dira sartzen eraispenetarako lizentzia eskusiboak


3. AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZAK, EMANDAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIEN ARABERA

2020an, aurreikusitako etxebizitzaren kopuruak nabarmen egin du behera, batik bat eraikuntza berriko lizentzietan, eta eten egin da 2013tik 2019ra bitartean ikusitako hobekuntza.

Epe luzeko analisiaren ikuspegitik, 2019. urtearen amaierarako aurreikusitako 5.870 etxebizitzek 2014 eta 2018 artean erregistratutako jardueraren suspertzea berresten dute. Hala ere, 2020an % 28,5eko beherakada izan da aurreikusitako etxebizitzetan (2019an erregistratutako datuekin alderatuta), seguruenik Covid-19ak izan duen eraginagatik (5.870 etxebizitza izan ziren 2019an, eta 4.197 aurreikusten dira gaur egun).

Bestalde, 2007 eta 2013. urteen artean erregistratutako beherakaden intentsitateak eta 2013tik 2019ra bitartean izandako susperraldi arinak argi azaltzen dute 2020an aurreikusitako etxebizitzaren kopuruak 2007an aurreikusitakoak baino % 75,7 txikiagoa izaten jarraitzen duela (4.197 etxebizitza 2020an eta 17.250 2007an).

5. grafikoa. Aurreikusitako etxebizitza berrien eta birgaituen kopuruaren bilakaera, EAEko obra handiko lizentzien arabera, urtez urte. EAE 2002-2020



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 1998 - 2020



2007ko higiezinaren krisiak eragindako ondorioak handiagoak izan dira **eraikuntza berriko** etxebizitzari dagokionez. Kasu horretan, aurreikusitako jarduketaren kopuruak 2015etik 2019ra bitartean nabarmen gora egin duen arren (+% 47,6 2015 eta 2016 artean, +% 3,2 2016 eta 2017 artean, +% 1,1 2017 eta 2018 artean, eta +% 5,3 2018 eta 2019 artean), zifra oso urrun dago 2007an erregistratutako 16.322 etxebizitzetatik. Horri gehitu behar zaio Covid-19ak eragindako krisialdiko urte honetan eraikuntza berriko etxebizitzaren aurreikuspenak izan direla berriz ere kaltetuenak; izan ere, % 35,9ko beherakada izan da 2019ko datuekin alderatuta (3.001 etxebizitza 2020an, eta 4.685 etxebizitza 2019an).

2007. urtearekin alderatuta, 2020an aurreikusitako jarduketak dituzten oin berriko etxebizitzaren bolumenak % 81,6ko beherakada izan du.

4. taula. Aurreikusitako etxebizitzak, obra handiko lizentzia motaren arabera, urtez urte. 2002-2020
(Urte arteko aldakuntza eta balio absolutuak ehunekotan)

Urtea	Guztira		Eraikuntza berria		Birgaikuntza	
	Kop.	Aldakuntza	Kop.	Aldakuntza	Kop.	Aldakuntza
2002	11.748	-	11.171	-	577	-
2003	14.643	24,6	13.864	24,1	779	35,0
2004	15.137	3,4	13.995	0,9	1.142	46,6
2005	13.903	-8,2	13.146	-6,1	757	-33,7
2006	16.940	21,8	15.966	21,5	974	28,7
2007	17.250	1,8	16.322	2,2	928	-4,7
2008	10.820	-37,3	10.013	-38,7	807	-13,0
2009	7.991	-26,1	7.456	-25,5	535	-33,7
2010	7.515	-6,0	6.916	-7,2	599	12,0
2011	8.449	12,4	7.725	11,7	724	20,9
2012	4.377	-48,2	3.783	-51,0	594	-18,0
2013	3.235	-26,1	2.613	-30,9	622	4,7
2014	3.573	10,4	2.862	9,5	711	14,3
2015	3.722	4,2	2.889	0,9	833	17,2
2016	5.211	40,0	4.264	47,6	947	13,7
2017	5.264	1,0	4.401	3,2	863	-8,9
2018	5.582	6,0	4.449	1,1	1.133	31,3
2019	5.870	5,2	4.685	5,3	1.185	4,6
2020	4.197	-28,5	3.001	-35,9	1.196	0,9
2007-2020 Aldakuntza	-13.053	-75,7	-13.321	-81,6	268	28,9

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 1998 - 2020


Birgaitzeko obra handiko lizentzietan lotutako etxebizitzaren bilakaera positiboak, 2017an izan ezik, bere horretan jarraitu du 2020an; % 0,9ko igoera txiki bat izan du 2019ko datuekin alderatuta, eta % 28,9koa 2007. urtearekin alderatuta. Izan ere, 2020an (1.196 etxebizitza) 2002tik erregistratutako maximoa lortu da, 2019ko erregistroa 11 etxebizitzatan gaindituz.

2020an, Arabak bakarrik saihestu du beherakada eraikuntza berriko lizentzietan lotutako etxebizitzaren aurreikuspenari dagokionez. Oro har, eragina txikiagoa izan da etxebizitzak birgaitzeko lizentzietan, baina Gipuzkoak bakarrik mantendu du goranzko bilakaera.

Azken urteetan oin berria suspertu den arren, 2006/2007an zegoen eraikuntza-jarduerarekiko aldea nabarmena da lurralde historiko guztietan. Azken urtean, Gipuzkoak 2019an berreskuratutako eraikuntza berriari lotutako jarduera galdu du (-% 46,7), eta beste bi lurraldeetan bezala, nabarmen jaitsi da aurreikusitako eraikuntza berriko etxebizitzaren bolumena 2007 eta 2020 artean. Hala, 2020rako aurreikusitako 949 etxebizitzek % 74,8ko jaitsiera izan dute, 2007ko 3.763 etxebizitzekin alderatuta.

Bestalde, Gipuzkoa izan da gorazko bilakaera izan duen lurralde bakarra birgaitzeko lizentziei dagokienez (% 13,2, hau da, 49 lizentzia gehiago).

6. grafikoa. Aurreikusitako etxebizitza berrien kopuruaren bilakaera, obra handiko lizentzien arabera, lurralde historikoaren eta urtearen arabera. EAE 2002-2020



Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 1998 - 2020

Bizkaian, Gipuzkoan bezala, beherakada nabarmena izan da azken urtean (-% 41) eraikuntza berriko etxebizitzari dagokienez. Birgaitze-obrekin lotutako lizentziek ere behera egin dute (-% 3,7), baina intentsitate txikiagoarekin. Epe luzerako bilakaerari dagokionez, Bizkaia % 80,2ko beherakada izan du 2007tik aurreikusitako eraikuntza berriko jarduketetan, tarteko pisuarekin hiru lurraldeen artean.



Arabaren kasuan, berriz, datuek hobera egin dute azken urtean (+% 5,3) eraikuntza berrietan aurreikusitako etxebizitzetara dagokienez, baina zertxobait behera egin dute aurreikusitako birgaitze-jarduketaren kasuan (-% 6,6). Hobekuntza txiki bat izan arren, eraikuntza berriko etxebizitzekin lotuta hiru lurraldeetako beherakadarik handiena izan du 2007arekin alderatuta, beherakada % 87,3koa izan baita (2007an aurreikusitako 6.090 etxebizitzetatik 2020ko 772 etxebizitzetara).

5. taula. Aurreikusitako etxebizitzak lurralde historikoaren arabera, obra handiko lizentzia motaren arabera, urtez urte. 2002-2020

(Urte arteko aldakuntza eta balio absolutuak ehunekotan)

Urtea	Araba				Bizkaia				Gipuzkoa			
	Eraikuntza berria		Birgaikuntza		Eraikuntza berria		Birgaikuntza		Eraikuntza berria		Birgaikuntza	
	Kop	Aldakuntza	Kop	Aldakuntza	Kop	Aldakuntza	Kop	Aldakuntza	Kop	Aldakuntza	Kop	Aldakuntza
2002	2.889		125		5.004		261		3.278		191	
2003	3.996	38,3	195	56,0	6.086	21,6	266	1,9	3.782	15,4	318	66,5
2004	4.164	4,2	231	18,5	6.432	5,7	412	54,9	3.399	-10,1	499	56,9
2005	2.632	-36,8	231	0,0	6.026	-6,3	275	-33,3	4.488	32,0	251	-49,7
2006	4.745	80,3	268	16,0	6.227	3,3	314	14,2	4.994	11,3	392	56,2
2007	6.090	28,3	277	3,4	6.469	3,9	184	-41,4	3.763	-24,6	467	19,1
2008	3.696	-39,3	147	-46,9	3.560	-45,0	390	112,0	2.757	-26,7	270	-42,2
2009	3.625	-1,9	207	40,8	1.564	-56,1	179	-54,1	2.267	-17,8	149	-44,8
2010	2.363	-34,8	143	-30,9	1.883	20,4	217	21,2	2.670	17,8	239	60,4
2011	2.445	3,5	173	21,0	3.274	73,9	349	60,8	2.006	-24,9	202	-15,5
2012	1.107	-54,7	125	-27,7	1.360	-58,5	257	-26,4	1.316	-34,4	212	5,0
2013	299	-73,0	195	56,0	1.703	25,2	236	-8,2	611	-53,6	191	-9,9
2014	292	-2,3	157	-19,5	1.590	-6,6	356	50,8	980	60,4	198	3,7
2015	338	15,8	181	15,3	1.277	-19,7	424	19,1	1.274	30,0	228	15,2
2016	414	22,5	210	16,0	2.446	91,5	418	-1,4	1.404	10,2	319	39,9
2017	514	24,2	199	-5,2	2.330	-4,7	427	2,2	1.557	10,9	237	-25,7
2018	539	4,9	228	14,6	2.674	14,8	560	31,1	1.236	-20,6	345	45,6
2019	733	36,0	272	19,3	2.171	-18,8	542	-3,2	1.781	44,1	371	7,5
2020	772	5,3	254	-6,6	1.280	-41,0	522	-3,7	949	-46,7	420	13,2
2006-2020 Aldakuntza	-3.973	-83,7	-14	-5,2	-4.947	-79,4	208	66,2	-4.045	-81,0	28	7,1
2007-2020 Aldakuntza	-5.318	-87,3	-23	-8,3	-5.189	-80,2	338	183,7	-2.814	-74,8	-47	-10,1

Iturria: Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 1998 - 2020



4. ALDERDI METODOLOGIKOAK

Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika errolda-eragiketa bat da, eta bertako informazioa EAEko 251 udalek igortzen dute hilero. Informazio hori udalerrietan emandako obra handiko lizentziei buruzkoa da, eta udalek etxebizitza babestuak sustatze aldera eskuratutako lurzoruari buruzkoa. Bestalde, udalek alokatzeko daukaten etxebizitza-parkeari buruzko informazioa ere jasotzen da urtero.

Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistikaren (EEEE) helburu orokorra Euskal Autonomia Erkidegoan zenbat, zer eta non eraikitzen, birgaitzen eta eraisten den jakitea da. Udalek emandako obra handiko lizentzietatik abiatuta, obraren ezaugarri nagusiak (oin berria, birgaitzea edo eraistea), eraikinaren erabilera eta eragindako etxebizitzak ezagutu nahi dira.

Definizioak:

Obra handiko lizentzia: Obra handiko lizentzia obra handiak egiteko baimen bat da, tokian tokiko administrazio eskudunak ematen duena, oin berriko edozein eraikuntza mota egiteko edo eraikinak eraitsi edo birgaitzeko, horiek bizitegi-erabilerakoak izan ala ez. Baimenaren helburua lizentzia-eskaera hirigintza-araudiak xedatzen duenarekin bat datorrela egiaztatzea da.

Ondorio horietarako, honako hauek jotzen dira obra handitzat:

- a. **Oin berriko obra:** Eraikin berri bat eraikitzeko obra handia da, aldez aurretik beste eraikin bat osorik eraitsita edo eraitsi gabe. Eraikinak bizitegi-erabilera izan dezake, edo bestelako erabilera bat.
- b. **Birgaitze-obra:** Aurrekoa ez bezala, ez da eraikin berriak eraikitzeko obra handia, baizik eta jada eraikita daudenetan egitekoa, aldez aurretik eraipen partzialak eginda edo egin gabe.

Obraren eraginpean dagoen eraikinak bizitegi-erabilera izan dezake, edo bestelako erabilera bat.

Birgaitze-obra bat obra handitzat jotzeko, arkitekto edo pareko batek ikus-onetsitako proiektu tekniko bat egin behar da. Proiektu tekniko hori nahitaezko baldintza gisa jaso beharko da lizentzia emateko aurkeztu behar den dokumentazioan, eta baldintza hori betetzen ez dutenak obra txikiko lizentziazat hartuko dira.



Obra horiek bi motakoak izan daitezke:

- Handitzeko obra: lehendik eraikitako azalera handitzen denean, egiturazko elementu berriak erantsita. Handitze hori bertikalean egin daiteke, lurzoruaren gainean hartutako azalera areagotu gabe (adibidez, beste solairu bat erantsita), edo horizontalean; azken kasu horretan, lurzoruaz azalera gehiago hartzen da.
- Erreforma- eta/edo zaharberritze-obra. Eraikinaren azalera eraikia aldatu gabe, eraikinaren egiturazko elementuren bat aldatzen denean edo lehendik ez zegoen hornidura berriren bat ezartzen denean.

Atal honetan jasotako birgaitze-obra handiak hainbat arlotakoak izan daitezke. Ohikoenak honako hauek dira:

- Eraikinak handitzea, horiek jasotzeko obra eginez edo azalera gehiago hartuz.
- Igogailuak edo antzekoak jartzea.
- Fatxadaren eta/edo teilatuaren birgaitze osoa.
- Merkataritzako lokal bati bizitegi-erabilera ematea.
- Eraikinean egiturazko aldaketak egitea behar duten etxebizitzaren edo lokalen barne-egokitzapena.
- Etxebizitza bat edo batzuk banantzea edo batzea.
- Beren konplexutasunagatik edo ezaugarri teknikoengatik, edo duten garrantzi ekonomikoagatik, eskumeneko sailak obra handitzat jotzen dituen erreforma-obrak.

c. Eraispén-obra: Eraikin bat guztiz edo partzialki eraistea da.



ERAIKUNTZARI ETA ETXEBIZITZARI BURUZKO ESTATISTIKA 2020. urtea

Emaita nagusiak

AURKIBIDEA

1. OBRA HANDIKO LIZENTZIAK	2
2. EMANDAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIEN ERABILERA	7
3. AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZAK, EMANDAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIEN ARABERA	11
4. ALDERDI METODOLOGIKOAK	15
TAULEN AURKIBIDEA	17
GRAFIKOEN AURKIBIDEA	17

TAULEN AURKIBIDEA

1. taula. Obra handiko lizentziak urteka, obra motaren arabera. 1998-2020	2
2. taula. Eraikuntza berriko eta birgaitzeko obra handiko lizentziak, urtearen eta lurralde historikoaren arabera, obra motaren arabera. 1998-2020	5
3. taula. Obra handiko lizentziak, urtearen eta hiruhilekoaren arabera, obraren xedearen arabera (*) 1998-2020	7
4. taula. Aurreikusitako etxebizitzak, obra handiko lizentzia motaren arabera, urtez urte. 2002-2020	12
5. taula. Aurreikusitako etxebizitzak lurralde historikoaren arabera, obra handiko lizentzia motaren arabera, urtez urte. 2002-2020	14

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1. grafikoa. Obra handiko lizentzia kopurua obra motaren eta urtearen arabera. 1998-2020	3
2. grafikoa. Obra handiko lizentzien kopurua, obra motaren eta lurralde historikoaren arabera. 1998-2020	6
3. grafikoa. Obra handiko lizentziak, urtearen eta hiruhilekoaren arabera, obraren xedearen arabera. 1998-2020	8
4. grafikoa. Bizitegitarako ez diren obra handiko lizentziak, obraren xedearen arabera (*). 1998-2020	10
5. grafikoa. Aurreikusitako etxebizitza berrien eta birgaituen kopuruaren bilakaera, EAEko obra handiko lizentzien arabera, urtez urte. EAE 2002-2020	11
6. grafikoa. Aurreikusitako etxebizitza berrien kopuruaren bilakaera, obra handiko lizentzien arabera, lurralde historikoaren eta urtearen arabera. EAE 2002-2020	13

Informazio gehiagorako:

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Zerbitzu Zuzendaritza. Estatistika Organo Berezia

Donostia kalea 1, 101010 Gasteiz

Telefonoa: +34-945-01 69 61; Faxe: +34-945-01 98 56

Webgunea: www.euskadi.eus/lurralde-estatistikak
www.euskadi.eus/etxebizitza-estatistikak
<https://www.etxebide.euskadi.eus/x39-ovse110x/eu/estadísticas-vivienda@euskadi.eus>

E-maila: estadísticas-vivienda@euskadi.eus